

EUSKALDUNTZE-ARLOA:	ERABILERA-PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITA TEA:	LINEAKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA	15 ordu HARTZAILEAK EAEko Herri Administrazioetako langileak
BETE BEHARREKO BALDINTZAK	Bigarren edo hirugarren hizkuntza-eskakizuna gaindituta izatea.
LEHENTASUNA	Erabilera-planaren eraginpean dauden langileek lehentasuna izango dute ikastaro honetan parte hartzeko.
TUTORETZAK	Ikastaroan tutoreek honako lanak egingo dituzte: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Mezu bat bidaliko dio ikasleari ikastaroari ongietorria emateko plataformaren bitartez. ▪ Kontsultak jaso eta argitu: <ul style="list-style-type: none"> - Ikastaroaren EDUKIArekin zerikusia dutenak, plataformako foro eta plataformako bestelako baliabideen bidez. - Erantzuna 24 ordutan emango dute. ▪ Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egin.
IKASTARO ESKAINTZA	Maiatzak 2 - 31
ESKATZEKO AZKEN EGUNA	Apirilaren 15a
ONIRITZI EPEA	Apirilak 18 - 22
BAJA EMATEKO EGUNAK	Maiatzaren 2a eta 3a

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	Zuzentasuna lantzea eta Euskaltzaindiaren arau garrantzitsuenetan egunean jartzea.
GAITASUNAK	Ikasleak prestakuntza-ekintza amaitzean: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Egoki erabiliko ditu Euskaltzaindiaren araurik garrantzitsuenak. ▪ Oro har, zuzenago idatziko du, Euskaltzaindiaren arauak ondo betez.



EUSKALDUNTZE-ARLOA:	ERABILERA-PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITA TEA:	LINEAKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA

Ikastaroak teoria eta praktika uztartzen ditu. Ikastaroak 7 atal nagusi ditu eta, bertan, hainbat unitate didaktiko. Unitate bakoitzean power point baten bidez teoria azalduko da. Horrez gain, unitate gehienek tutoreari bidali beharreko jarduera bana izango dute.

Irakasle batek gidatuko du ikasle-taldea eta bakoitzaren urratsak jarraituko ditu.

PROGRAMA

1. Atariko unitatea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ongietorria. ▪ Aurkibidea.
2. Zenbakiak, orduak eta datak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zenbakien idazkera. ▪ Zenbakien deklinabidea.
2.1 Zenbakiak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ordinalen eta banatzaileen idazkera.
2.2 Orduak, datak eta abar	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Orduak. ▪ Orduak zenbaki bidez. ▪ Data. ▪ Data zenbaki bidez.
3. Hitz elkartuak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zer da? ▪ Idaztarauak: loturik, bereiz ala marratxoz?
4. Ahoz vs. idatziz	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bat-batean, behinik behin, batik bat.
4.1 (I)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bait- ▪ Aurrealde edo aurreko alde. ▪ -z gero.
4.2 (I)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ene/nire, nirekin, niri. ▪ Arrain, usain, artzain. ▪ -zio ▪ Arabera. ▪ Iritzi.
5. Deklinabide kontu batzuk	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Bat</i> eta <i>batzuk</i>-en deklinabidea. ▪ <i>3 kiloko haurra</i>.
5.1 (I)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Partitiboaren erabilera okerrak.
5.2 (I)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hau guztia. ▪ Benetako, ohiko. ▪ Betiko eta horren kideak.



EUSKALDUNTZE ARLOA:	ERABILERA PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITA TEA:	LINEAKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

PROGRAMA

- | | | |
|-----|--------------------------|---|
| 6. | | <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Zu izan ezik.</i> ▪ Komuntadura aposizioetan. ▪ Izen sintagmen arteko juntadura dela eta. |
| 6.1 | | |
| | Komuntadura-kontu batzuk | |
| 6.2 | Zenbait aditz berezi | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekartzea merezi du. ▪ Topiko(a) bihurtu. ▪ Egiteko asmoz. |
| | 7. Aditz kontu batzuk | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Arazi. ▪ Arazi aditzaren erregimena. ▪ Zenbait aditzen erregimena (gonbidatu, itxaron, deitu, lagundu...). |
| 7.1 | (I) | |
| 7.2 | (II) | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aditzoinen forma. ▪ Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma. ▪ Behar izan aditz irangaitzekin. ▪ Nahi izan aditz irangaitzekin. |

EBALUAZIOA

Ebaluazioaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea. Ikastaroak 6 jarduera ditu eta horietan oinarrituko da ebaluazioa. Ikasleak ikastaroko jarduerak egin eta bidaliko dizkio irakasleari, horrek ikasleari zuzendu eta lanaren feedbacka eman diezaion. Era berean, tutoreak gomendatuko du edukiak noizko ikasi eta jarduerak noizko egin behar diren.

- Ikasleen lineako gogobetetze-inkesta plataforma barruan dago ikastaroko edukien azpian.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Aprobetxamenduko ziurtagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- > Irakasleari, gutxienez, ikastaroko jarduera guztiak bidali.
- > Ikastaroko 6 jardueretatik 5ek, gutxienez, gai kalifikazioa jasotzea.

IVAPek igorriko ditu ziurtagiriak Zerbitzu Zuzendaritzetara edo antzekoetara.

PREZIOA

107 €

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.

